

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bizkarrezurra puskatu arren, zutik

ROB SUMMERS- EK UTZIA



Rob Summers, entrenamendu-saio batean.

ROB SUMMERS-ek, Oregon-eko Unibertsitateko (AEB) beisbol taldeko kideak, bizkarrezurra puskatu zuen orain bost urte auto-istripu baten ondorioz, eta betiko galdu zuen gorputzaren behe aldeko kontrola, edo hala uste zuen behintzat.


Summers-ek Kentucky-ko bizkarrezurra-neri ikerketa-zentroaren esku utzi zuen bere burua, eta berriki jakin izan dugu lehen urratsak eman ez ezik zutik irautea lortu duela, minutu gutxi batzuetan bederen.

Antza, orain urte batzuk elektroestimulazioarako unitate eramangarria jarri zioten bizkarrean. Entrenamendu-saio ugarietan inguruko nerbioak estimulatu zituzten, eta horiei erakutsi zaie ez diotela garunari kasurik

egin behar, makina eramangarriari baizik; saio askoren ostean lortu da Summers-ek hantek "garun" berriari kasu egitea. Hurbilago egon gaitezke zenbait amets errealitate bihurtzetik.

Planeta bakartiak

NATURE ALDIZKARIAN diotenez, Takahiro Sumik eta beraren ikerlari taldeak dozena bat inguru planeta bakarti identifikatu dute. Planeta handiak dira, Jupiterren tamainakoak batzuk, eta antza denez ez dute inolako izarren inguruan orbitatzen.



NASA

Aipatu ikerlarien ustetan, planeta bakarti horiek hasieran izar baten inguruan biraka aritzen ziren, baina ezagutzen ez diren arrazoiengatik irten egin ziren zeuden orbitetatik eta inorako bideari ekin zioten.

Aurkikuntza honek erantzunik ez duten galdera ugari planteatzen du. Oraingo dozena bat planeta bakarti baino ez da aurkitu, baina milioika izan daitezke, aztertutako zero zatia oso txikia izan baita.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16

Grabitazio-uhinen bila

Einsteinen erlatibitate orokorraren teoriak aurreikusten duenez, masadun zerbait higitzean, espazio-denboran eragindako deformazioen ondorioz, grabitazio-uhinak sortu behar dira. Baina orain arte ezin izan da sekula halakorik behatu. Europar Batasunak sortuko du xede hori izango duen munduko instalaziorik handiena.

<http://ttiki.com/28288> (Frantsesez)

Grafenoaren lore itxurako akatsak

Grafenoa sei karbono atomoz osaturik dago eta beraren propietateak direla-eta oso preziatua da zientzialarien artean. Orain, AEBetako NIST institutuko Joseph Stroschio ikerlariak grafenoaren propietateen erantzukizuna duten "hutsak" topatu ditu.

<http://ttiki.com/28289> (Frantsesez)

Gizakiak eskuin eskua noiztik erabiltzen duen ebatzi dute

Europa eta Ameriketako ikerlari talde baten arabera, gizakiak gutxienez 500.000 urte darama eskuineko eskua ezkerre baino gehiago erabiltzen. Burgostik (Espainia) hurbil dagoen Hezurren Zuloan topatutako hortzen higadurak adierazi die ikertzaileei garai hartakoek zein eskurekin heletzen zieten elikagaiak.

<http://ttiki.com/28290> (Gaztelaniaz)